

Gure enpresak bezeroekin harreman egonkorra, hurbila eta konfiantzan oinarritua ezartzea du helburu, betiere jasangarritasunaren eta kontsumo arduratsuaren balioak oinarri hartuta. Bezeroekiko harremanak funtsezkoak dira gure negozio-ereduan, eta horregatik argi definitzen dugu zein harreman mota eskaini nahi dugun, bezeroaren gogobetetasuna eta epe luzeko leialtasuna sustatzeko.

Bezero berriak erakartzeko, batez ere kanal digitalak erabiliko ditugu. Webgune baten bidez, bezeroek gure arropa birziklatua modu erosoan ikusi eta erosi ahal izango dute, denda fisiko batera joan beharrik gabe. Webgune honek autozerbitzua eskainiko du, bezeroek eskaerak egin, haien egoera kontsultatu edo aldaketak kudeatu ahal izateko. Gainera, sare sozialen bidez gure enpresaren balioak, ekoizpen prozesua eta ingurumenarekiko konpromisoa komunikatuko ditugu, bezero potentzialen interesa pizteko.

Bezeroak mantentzeko eta haien arteko harremana sendotzeko, laguntza pertsonala eskainiko dugu online bidez, bezeroen zalantzak argitzeko eta beharrezko orientazioa emateko. Aldi berean, zerbitzu automatizatuak erabiliko ditugu, hala nola erosketa osteko jakinarazpenak, produktu berrien inguruko informazioa edo arropa zaintzeko aholkuak, bezeroarekin harreman jarraitua mantentzeko.

Bezeroak gure negozio-ereduan integratzeko, komunitate bat sortzea aurreikusten dugu, non bezeroek beren iritzia eman eta proposamen berrietan parte hartu ahal izango duten. Halaber, harpidetza edo fidelizazio sistemak eskaintzea aztertuko dugu, bezeroek deskontu bereziak edo eduki eskusiboak eskuratzeko aukera izan dezaten, markarekiko lotura handituz.

Azkenik, bezeroekiko harremanek produktuarekin lotutako zerbitzu osagarriak garatzeko aukera emango dute, hala nola salmenta ondorengo laguntza edo konponketa zerbitzuak. Horrek bezeroaren gogobetetasuna handituko du eta, aldi berean, diru-sarrera osagarriak sortzeko aukera emango dio enpresari. Horrela, gure bezeroekiko harremanak ez dira salmentara mugatuko, baizik eta epe luzerako harreman sendoak eraikitzea izango da helburua.